

EGUBERRIAK DEBEKATUTA



Nagore Irazustabarrena
Uranga
@irazustabarrena

Londres, 1643ko abenduaren 19a. Ingalaterrako Parlamentuak ordenantza bat jarri zuen indarrean, Eguberriak ospatzea debekatzen zuena. Ingelesak ordurako zatituta zeuden parlamentuzale eta erregezaleen artean, anglikano berri eta katoliko zaharren artean, eta neurriak zatiketa areagotu besterik ez zuen egin.

Baziren 100 urtetik gora Henrike VIII.ak 1534an Erromako elizarekin hautsi zuela. Elisabet I.a alabak Ingalaterrako eliza finkatu eta sendotu zuen, eta, hala ere, gizartea ez zen bat-batean anglikano bihurtu. Baina XVII. mendean erdialdean Parlamentuko ordezkariak gero eta gehiago urruntzen ari ziren katolizismotik eta, Oliver Cromwell buru, puritanoen korrontea indarra hartzen ari zen. Azkenean, parlamentariak Karlos I.a erregea exekutatzeko lortuko zuten 1649an. Baina ospakizun katolikoei sei urte lehenago moztu nahi izan zieten burua.

Puritanoek gogor kritikatu zituzten eliza katolikoaren gehiegikeriak eta erlijioa aszetismoz eta inolako luxurik gabe praktikatzeko bultzatzen zuten. 1643ko legearen arabera, herritarrek Eguberrietan "umil jokatu behar dute, gure bekatuak eta gure arbasoenak gogoan izanda, Kristori omen egitea aitzakia, egun hauetan Jauna erabat ahaztu eta



haragizko gehiegikeria sentsualei bide eman baitiete".

1644an, ordenantza berrestez gain, Pazkoko eta Mendekosteko ospakizunak ere galarazi zituzten. Debekuak indarrean jarraitu zuen 1660an monarkia berrezarri arte. Erregezaleek Eguberrietako ospakizunak baimentzearen alde egin zuten, baina, historiagile gehienek arabera, eguberrizaleak izan ziren estuardotarren kausa indartu zutenak, eta ez alderantziz.

1643an bertan liskarrak egon ziren, hilaren 25ean negozioren atek zabal-tzea erabaki zuten dendariei eraso zieten. Baina istilu larrienak 1647an



ROBERT WALKER / T. HORTON

Ekzerrean, Oliver Cromwell (1599-1658), Eguberria ospatzeko debekua bultzatzaile nagusia. Eskuinean, "Eguberrien errebindikazioa" izeneko panfletoa, 1653an inprimatu eta banatu zutena, debekua kontra egiteko.

izan ziren Londres, Ipswich, Norwich eta bereziki Canterbury. Eguberria publikoki ospatzeaz gain, orduan ere, denbei gogor eraso zieten. Nork pentsa gerora Eguberriak eta dendak eskutik hain ondo helduta joango zirela. ■



T. BRACK ARTXIBOIA

Eiffel dorrea, publizitate panel ikusgarria

1925etik 1934ra, Parisko dorrerik ezagunena Citroën auto markaren publizitate panela izan zen. Monumentuaren lau aldeetatik hirutan zeuden zazpi hizkiak jarrita; goitik behera 30 metro baino gehiago hartzen zituzten. Guztira, 250.000 bonbiletik gora pizten ziren egunero ilunabarrean auto enpresaren izena lau haizetara –edo hirutara behintzat– zabaltzeko. Dorretik

30 kilometrorra ere irakur zitekeen mezu sinplea. Markaren garrantzia nabarmendu eta argindarra xahutzeaz gain, kartel erraldoiak zerbitzurik ere eman zuten. 1927ko maiatzean, Charles Lindberghek Atlantikoa hegazkinez zeharkatu zuen lehenengoz. 33 orduko hegaldiaren ondoren, Citroën kartela erabili zuen erreferentziatuz orientatu eta Parisen lur hartzeko. ■